



❖ TIBET

Monjeek egindako mandala herriari eskainiko diote

Tibeti buruzko jardunaldiak izaten ari dira aste honetan. Egun hauetan Tibeteko hainbat monje mandala bat egiten ari dira eta *Herrien arteko elkartasuna* izenburua jarri diote. Mandala hori gaur Hernaniko herriari entregatuiko diote, 13:00etan, Biterin. ||

❖ Gay, lesbiana eta transexualen harrotasun eguna

Homosexualitatea plazaratzeko ekitaldiak izango dira datorren astean

Gehitu eta Udalak ekitaldiak antolatu dituzte Gay, Lesbiana eta Transexualen Nazioarteko Eguna dela eta. Asteartean erakusketa hasiko da eta larunbatean emanaldiak izango dira.

EKAINAREN 28a, Gay, Lesbiana eta Transexualen Nazioarteko Eguna da, eta gai horren bueltan urteak lanean daramazkien Gehitu elkarteak eta Udalak ekitaldiak antolatu dituzte, gai horren inguruko aldarrikapenak kalera ateratzeko helburuarekin.

Asteartetik aurrera erakusketa

Asteartetik aurrera *Emakume eta gizon homosexualak historian zehar* izeneko erakusketa ikusi ahal izango da Biteriko pasiloetan. Guztira 26 panelek osatzen dute erakusketa eta bakoitzean ikusi ahal izango da historian zehar pisua izan duen pertsona baten argazkia eta biografia. Pertsona guzti hauek homosexualak izan dira. Adibide batzuk aipatzearen, honako pertsonen berri emango dute panelek: Safo greziar olerkaria; Sor Benedetta XVII mendeko italiar monja; Virginia Wolf Londresko idazlea; eta Chavela Vargas musikari mexikarra.

Koldobide Mujikak azal dutakoaren arabera, pertsona hauetako asko famatuak izan arren, beren joera sexuala izkutuan mantendu da: «erakusketa honen helburua, batetik, haiekiko justizia egitea da eta jendea informatzea; eta beste alde batetik, pertsona homosexualen erreferenteak ematea, batez ere gazteei».

Koordinatzaileak azpimarratutako beste puntu bat da saiatu direla historiaren aro



Irantzu Jauregi Berdintasun Teknikaria, Koldobike Mujika Gehituko koordinatzailea, Usoa Barrutiabengoa gai sozialetako zinegotzia eta Sergio Iñiguez Gehituko koordinatzailea.

► Ekainaren 28aren inguruko ekitaldiak:

Ekainaren 2tik 19ra:

- Erakusketa: *Emakume eta gizon, homosexualak historian zehar*. Historian zehar pisua izan duten gizon-emakume homosexualen panelak jarriko dira, argazki eta biografiarekin. Guztira 26 panel. Biteriko pasiloetan, goizeko 09:00etatik 22:00etara. Larunbatean 11:00etatik 13:00etara.

Ekainaren 7:

- Abesbatzen emanaldia: Gehitu abesbatza eta Irungo Kabigorri abesbatzen emanaldia. Arratsaldeko 18:00etan, Milagrosan.
- Antzerkia: *Ser o no ser visible*, Cristina Castilloren bakarrizketa. Antzerkiaren ardatza da lesbianek beren sexu orientazioa plazaratzeko dituzten arazoak. 20:00etan, Milagrosan.

ezberdinetako pertsonak erakusketan jartzen, baina V-XVI mendeen artean hutsune izugarria somatu dute.

Ekainaren 7an abesbatzak eta antzerkia

Abesbatza eta antzerki emanaldia da antolatu duten beste ekitaldi bat. Larunbatean izango da Milagrosan, arra-

tsaldeko 18:00etatik aurrera. Ordu horretan Gehitu eta Irungo Kabigorri abesbatzek emanaldia eskainiko dute.

Jarraian Cristina Castillo aktoreak *Ser o no ser visible* bakarrizketa eskainiko du. Gehituko koordinatzaileak azal dutakoaren arabera, aurtengo ekainaren 28rako azpimarratu duten gaia izan da

emakumezkoek, lesbianek, beren joera sexualak plazaratzeko dituzten zailtasunak: «nahiz eta legalki homosexualak eskubideak lortu, arlo horretan ere gizon eta emakumeen arteko berdintasuna ez baita lortu gizartean» azaldu du. Antzerkia ere gai horren bueltako hausnarketa izango da. ||

❖ ETXERAT

Kontzentrazioa gaur, Plazan

Etxerat elkarteak ostiraleroko kontzentrazioa deitu du gaurko. *Estatus politikoa orain, Euskal Presoak Euskal Herrira* izango da lema. Arratsaldeko 20:00etan, Gudarien plazan. ||

❖ AHT GELDITU

Manifestazioa eta kontzertua gaur

AHTaren kontrako astea antolatu du Gazte Asanbladak. Gaur trenaren kontrako manifestazioa izango da, arratsaldeko 20:30etan, Plazatik abiatuta. Gaueko 22:30etan kontzertuak izango dira, *Trifurka* eta *Ania* herriko musikariek. ||

❖ KULTUROLA


Bilera bihar

Euskal kultura sustatzeko gunea sortzeko bilerak egiten ari da herritar talde bat. Proiektuaren aurkezpena egingo dute bihar, goizeko 11:00etan, Sandiusterrin. ||

◆ ZIKLOTURISTAK

Hitzaldia gaur

Xabier Sansinenea medikuntzan lizentziatuak txirrindularitzako lesioei buruzko hitzaldia emango du gaur, Zikuñako Ama zikloturista taldeak antolatuta. Gaur arratsaldeko 20:00etan, Biterin. ||

Hernaniko Udala  Hernani-Gipuzkoa

Aurtengo udan Saharako haurrik ez Hernanin?
Famili hartzaile bila gabiltza. Animatu!

INFORMAZIOA | Udal lankidetzaren arloa
ETA | 943-337017 - 943-336802 - marijo-m@hernani.net
IZEN EMATEA | Epea: maiatzak 30

AKELENEA
Erregetgia - XIX Mendeko Sagardotegian

Koldo eta Ana

Eguneko menuak
Kuadrilako bazkari
eta afariak
Karta

Egunero zabalik

Oialume Bidea, 57 • 20115 Astigarraga
Tel. 943 333 333

LOREAK MENDIAN

ONDARKINAK LURPEAN

eta Bideak gainean

ANTZERKI KIZIKALANK + BERTSU

Antzerki emanaldia "Loreak mendian"

Zuzendaria:
MATTIN IRIGOYEN

Noiz: Ekainak 7, larunbata
Ordua: 19:00etan
Non: Biteri Kultur Etxea

Antolatzailea: **dobEra**
EUSKARA ELKARTEA

Sarrera: 4 euro

☎ TELEFONOAK | Taxiak: 943 550093 | Udaltzaingoa: 943 248900 | DYA: 943 464622 Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 | Anbulatorioa: 943 006666 | Jokalari anonimoak: 943 331103 | Alkoholiko anonimoak: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK | Egunez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022 | Gaeuz: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Trumoi lainoak eta zaparradak botako ditu. Haizea eta laino asko izango dira. Tenperaturek behera egingo dute.
BIHAR Giro nahasiarekin jarraituko dugu. Zerua estalita izango da eta zaparradak botako ditu. Tenperaturak antzeokoak.
 (euskalme)

◆ PELOTA - Herri Arteko Pelota Txapelketa

Hernani-Elgoibar bueltako partidua gaur, kiroldegian

Hernaniarrek ez lukete arazorik behar txapelketan aurrera egiteko, joaneko partiduan 2-1 irabazi baitzuten, 11 tantoko aldearekin.

HERRI Arteko Pelota Txapelketan Hernani aurrera egiten ari da eta dagoeneko final laurdenetan da. Gaur Elgoibarren kontra jokatu du kiroldegian, bueltako partiduetan. Partidua gaueko 21:00etan hasiko dira.

Aipatzekoa da Ioritz Arrieta jubenila eskuetatik erreperatu ez bada ere, Hernanik ez lukeela arazorik behar aurrera egiteko. Izan

ere, joaneko partiduetan Hernanik 2-1 irabazi zuen, 11 tantoko aldearekin.

Kadeeteetan, Eneko Aizpitarte eta Markel Lizeagak jokatu dute Elgoibargo Gabilondo eta Arrizabalaren kontra.

Jubenil mailan, Mikel Noblek eta Haritz Otaegik jokatu dute, Arribillaga eta Lizarralderen kontra.

Nagusietan, Iñaki Esnal

eta Aitor Gorrotxategik jokatuko dute, Arrizabala eta Loiolaren kontra.

Pelotazaleei deia

Pelota elkarteak dei egin die pelotazaleei frontoira agertzeko, bai gaurko partidura eta baita hemendik aurrerakoetara ere. Filanurreko aurkaria Donostia edo Usurbil izango litzateke eta talde hauek ere jende asko ekartzen dute. ||

◆ ERRUGBIA

Landare Torneoak 280 errugbilari gazte bilduko ditu bihar

ALEBIN eta infantil mailako Landare Torneoak jokatu da bihar Landaren, eta bertan lehiatuko dira Euskal Herriko punta-puntako 6 klubetako taldeak. Hazparne (Lapurdi), Miarritze (Lapurdi), Azkaine-Sara (Lapurdi), Durango (Biz-

kaia), Gigantes-La Unica (Nafarroa-Garaia) eta Hernani (Gipuzkoa).

Torneoa 10:00etan hasiko da. Aurretik, harrera egingo zaie taldeei, 09:00etan, eta ordezkarien bilera izango da 09:25etan. Torneoa zelai nagu-

sia bitan banatuta jokatuko da, eta infantil eta alebinek sistema bera erabiliko dute: 3 ekipoko bi ligaxka jokatuko dira. Ligaxkako irabazleek 1-2 postuak jokatuko dituzte elkarren aurka; bigarrenek 3-4 postuak; eta azkenek 5-6 postuak. ||

👉 Jasota Bezala

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefona • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Larunbatean, Sandiusterrin: Kulturola egitasmoaren aurkezpena

Aurreko larunbatean Kronikak iragarri zuen bidetik, larunbat honetan Kulturola edota euskal kultur egitasmoaren aurkezpen publikoa egin nahi dugu. Urte t'erdia inguru daramagu hausnartzen Hernanik behar ote duen edota posible ote duen beste mailako kultur proiektu bat. Guk uste dugu baietz. Kultur sorkuntzatik abiatuta eta azpiegi-

turaren beharraz jabetuta, parte hartzea ororen gainetik izango zukeen proiektu bat litzateke.

Oinarrizko diseinua egiten eman dugu azken urte t'erdia. Hogeitabat lagun ibili gara aurrera eta atzera herriko kultur elkarte, ikastola, euskaltegi, alderdi politiko, e.a.-ekin bilerak egiten, ahalik eta gehien asetuko gaituen bidea eginez. Baina bide hori ez da amaitu eta ez da amaituko ere, egitasmo irekia baita, etenga-

be elikatu beharko dena. Euskararen erabilpena normalizatzeko beharretik abiatuta eta horrekin batera beste kultura berriei zabalik egongo den egitasmoari buruz aritu nahi dugu zuekin.

Horretaz, lerro hauen bitartez, gonbidatu nahi zaituztegu datorren larunbatean goizeko 11:00etan egingo den aurkezpenaren parte hartzera, eta, animatuz gero, zure iritzia ematera.

Peio Egaña Sarobe

ESKOLA KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

HERRI KIROLAK		FUTBOLA	
Alebin eta benjamin guztiak	Kiroldegian Bihar 09:15	Infan.Neskak	Urumea-Luberri Lazkaon Bihar 11:30
PALA			
Infan.Neskak	Urumea B-Bizkaia	Donostian	Bihar 10:30



Atal honen babesle:

HERNANIKO UDAL KIROL PATRONATUA



◆ OSINAGA AUZOA

Egitaraua banatzera igandean

Osinagako jaien egitaraua banatuko dute igandean auzoko etxeetan. Horrez gain, Arriatsun egingo den bazkarira joan nahi dutenen izenak ere jasoko dituzte. ||

◆ KONTZERTUA

Musika Eskolako txistulariak, igandean

Hernani Musika Eskolako txistularien kontzertua izango da datorren igandean, udaletxeko arkupeetan, eguerdiko 12:30etan. Txistu erreperitorio klasikoa izango da eta baita *perla* batzuk ere. ||

◆ FUTBOLA

Udako futbol kanpamenduak

1996tik 2001era jaiotako neska mutilentzat bost eguneko futbol udalekuak izango dira Zubipen, udaran. Izen ematea bihar bukatuko da eta interesatuek Kutxako 21 01 0068 71 0012108718 zenbakian sartu beharko dute dirua: aurten futbol eskolan ibili ez direnek 75 euro eta futbol eskolan ibili direnek 65 euro. Informazioa zabaltzeko bilera ekainaren 2an egingo da Biterin, 19:30etan. Informazio gehiagorako: 626 46 00 57 (Jordi), 687 46 57 19 (Iban) edo futboleskola@cdhernani.com. ||

◆ BERTSOLARITZA

Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala

Gaur jokatuko da Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala, Iruran, 16:00etan, eta nola ez, Hernaniko bertso eskolako kideak bertan izango dira txapelaren borrokan. Haundien mailan, Asier Azpiroz zubietarra pasa da finalera Hernaniko bertso eskolatik, eta txikien mailako taldea ere bai. Eñaut Martikorenak, Jon Iturbek, Eli Pagolak eta Aingeru Otxotorenak osatzen dute Hernaniko taldea. ||

◆ MUS TXAPELKETAK

Garin tabernan txapelketa

Mus txapelketa jokatuko da gaur, 22:30etan, Garin tabernan. Bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko du izen ematea eta saria arkume eder bat izango da. ||

◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

Volkswagen Transporter 2.5 tdi salgai, 102 CV, kanpinerako prestaturia. 2001 urtekoa, ITV pasata. Bizikletak eramateko, aire egokitua... Prezioa 15.000 euro. Deitu: 686 200 536 kotxea salgai. Mitsubishi Colt. Deitu: 605 748 821

Pixua salgai Hernanin. 3gela, egongela, sukalde eta komuna. Kalefazio zentrala eta igogailuarekin. Deitu: 620 82 35 15.

Hernanin aukerako pixua salgai. Sukaldea, 3 logela, komuna, kalefazioa... Kanpoaldera. Deitu: 628 116 949.

Elgoibarko Gaztelekuarekin udaleku itxietara (Mendigorría, uztailek 9tik 16ra) joateko hezitzailea behar da (kontratua) Tfnoa: 943 74 32 28 (Argitze) edo gaztelekua@elgoibar.org

Pixua salgai Floridan (La Cumbren). 60 m2 ditu, 2 logela, egongela, sukalde, komuna, 60 m2ko garbata eta trasteroa. Deitu: 627 501 957

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta Kuperros. Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behe. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologikoa eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)